

ARKITEKTURA GET

PLAN ESTRATEGIKOA 2021-2025

Eskolako Batzarrean onartua, 2021eko otsailaren 24an

Sarrera	3
Zuzendaritza Taldea	3
Metodologia.....	4
Misioa	4
AMIA analisia	5
Indarguneak	5
Ahuleziak	6
Mehatxuak.....	7
Aukerak.....	8
Ikuspegia	9
Estrategia	10
Tituluak	10
Ikasleak.....	11
Giza baliabideak.....	12
Ikerketa.....	12
Baliabide materialak.....	13
Komunikazioa	13
Gizartea	15
Balioak.....	16
Aginte Taula Estrategikoa	17
Tituluak	17
Ikasleak.....	18
Giza baliabideak.....	18
Ikerketa.....	20
Baliabide materialak.....	20
Komunikazioa	20
Gizartea	21

Sarrera

Dokumentu hau UPV/EHUko Arkitektura Goi Eskola Teknikoaren (aurrerantzean AGET) Plan Estrategikoa da 2021-2025 aldirako.

Bertan deskribatzen da Ikastegiaren gogoeta estrategikoa egiteko gauzatu den prozesua, baita prozesuaren ondoz ondoko etapetan atera diren ondorioak ere.

Era berean, AGETek aldi estrategiko horretan lortu nahi dituen helburuak jasotzen ditu, eta zehaztuta daude helburu horiek erdiesteko egokientzat jotzen diren estrategiak eta ekintzak. Argi eta garbi ezartzen du Ikastegiak egin nahi duen aurrerabidea, eta ikasleei, komunitate zientifikoari, unibertsitateko kideei eta gizarteari begira funtsezko aldaketak dakartzaten eremuak nabarmentzen ditu.

AGETeko Zuzendaritza Taldea izan da gogoeta estrategikoaren burua. Ikastegiko 6 pertsonak eztabaida eta gogoeta egin zuten eskolaren egungo egoerari buruz eta epe ertainerako aurreikuspenei buruz. Era berean, UPV/EHUko Kalitate eta Ebaluazio Instituzionaleko Zerbitzuaren (KEIZ) laguntza izan zuten, gogoeta hori egiteko beharrezko metodologiari zegokionez. AGETen izenean, Zuzendaritza Taldeak prozesuan parte hartzeagatik eskerrak eman nahi dizkie pertsona horiei, zehazki Alfonso Davalillori eta José Luis Pizarrori.

Zuzendaritza Taldea

Zuzendaria: Juan José Arrizabalaga Echeberria

Gradu eta Graduondoko zuzendariordea: Ramón Barrena Etxebarria

Euskara, Kultura eta Ikasleen Harremanetarako zuzendariordea: Izaskun Aseguinolaza Braga

Kalitate eta Ikasketa Berrikuntzarako zuzendariordea: Alex Mitxelena Etxebarria

Nazioarteko Harreman, Mugikortasun eta Eleaniztasuneko zuzendariordea: Enkarni Gómez Genua

Idazkari akademikoa: José Miguel Rico Martínez

Metodologia

Gogoeta estrategikoak fase hauek izan ditu:

1. AGETen misioaren berrikusketa
2. AMIA analisia
3. 2020ko ikuspegia
4. Estrategien definizioa
5. Ekintzen definizioa
6. AGETen balioen berrikusketa
7. Aginte Taula Estrategikoa

Jarraian, fase horietako bakoitza xehatuta dago, eta deskribatuta daude erabilitako sistematika eta ateratako ondorioak.

Misioa

Gogoeta estrategikoaren lehen etapan, AGETen misioa berrikusi eta eguneratu zen. Horretarako, puntu hauek aztertu ziren:

- Eskolaren izateko arazoia
- Egiten dituen jarduerak
- Hartzaile dituen kolektiboak
- Aktibo bereizleak

Zuzendaritza Taldeak gai horiek aztertu zituen, eta Eskolaren ezaugarriak eta bereizgarriak txertatu zituen bere ondorioetan.

Gogoeta horren emaitza gisa, misioa eguneratuta geratu zen, honela:

Misioa

UPV/EHUko Arkitektura Goi Eskola Teknikoak zerbitzu publikoa izateko bokazioa du, eta profesionalak trebatu nahi ditu, eta kultura arkitektonikoa sustatu, pentsamendu askatasuna, berrikuntza, konpromiso soziala, espiritu kritikoa eta euskararen sustapena ezaugarritzat dituen ingurune batean eta testuinguru eleaniztun batean. Hori lortzeko, giza talde gaitua dauka, baita irakaskuntzarako zein ikerketarako azpiegitura egokiak ere. Bertan bultzatzen diren jarduerak helburutzat dute arkitektura gizartean oro har zabaltzea.

AMIA analisia

Bigarren etapan, AGETen barneko egoera zein ingurunekoa irudikatzen duten ahuleziak, mehatxuak, indarguneak eta aukerak (AMIA) aztertu ziren, Plan Estrategikoa egiteko baliagarriak izango zirelakoan.

AMIA analisiak bi zati ditu: kanpo analisia eta barne analisia.

Kanpo analisia: Planak hartzen duen aldiaren ikastegian eragina izan dezaketen mehatxuak eta aukerak identifikatzean datza.

Biak dira kanpo faktoreak, eta onera edo txarrera baldintza dezakete Planean jasotako helburuen betetzea.

Barne analisia: AGETen indarguneak eta ahulguneak identifikatzean datza, horiek ikastegiaren errealitatea deskribatzen baitute eta kontuan hartu behar baitira ikuspegi estrategikotik.

Hauek izan ziren aztertutako eremuak:

- Tituluen garapena
- Kudeaketa administratiboa
- Azpiegiturak eta baliabideak
- Irakasle-ikertzaileen eta AZPko langileen kudeaketa
- Ikasleentzako arreta
- Komunikazioa
- Irudia eta gizartearekiko interakzioa

Ekarpen desberdinak aztertu eta lehenetsi ostean, honako hau izan zen AMIA analisiaren emaitza:

Indarguneak

Tituluen garapena

1I: Gizartearen premia berriei erantzungo dieten graduondoko titulu berriak eskaintzeko nahia.

2I: Ikasleen mugikortasun handia. Erasmus hitzarmen asko.

3I: EAEko arkitektura eskola bakarra, eta Euskal Herriko arkitektura eskola publiko bakarra.

4I: Titulu % 100 elebidunak (gradua eta lanbide masterra) eta eskaintza zabala ingelesez (gradua).

5I: Arkitekturako formakuntzak beste arlo batzuetan aplikatu daitezkeen sormen prozesuari begira eskaintzen dituen aukerak.

Kudeaketa administratiboa

6I: Zuzendaritza talde aktiboa eta kohesionatua.

7I: Harreman ona Zuzendaritza Taldean.

8I: Hobetzeko eta gauzak ongi egiteko gogoia Zuzendaritza Taldean.

Azpiegiturak eta baliabideak

9I: Ikasleen jardueratarako espazio propioa, 24 orduz martxan dagoena.

10I: Ekarpen ekonomikoa dakarten hitzarmenak erakunde publiko zein pribatuekin.

11I: Aparteko diru sarrerak (hitzarmenak, akordioak kanpoko estamentu publiko/pribatuekin).

12I: Fabrikazio digitaleko laborategia, FAB-LAB.

Irakasle-ikertzaileen eta AZPko langileen kudeaketa

13I: Irakasle-ikertzaile berri motibatuak eta sistema berrituak ikasi eta aplikatzeko prest daudenak.

14I: Langileen arteko harreman ona. Zuzendaritza eta AZP. Konfiantza giroa.

15I: Ikertalde berrien sorrera Eusko Jaurlaritzarekiko akordioarekin.

16I: Kanpoan jardun profesionala gauzatzen duten irakasle ugari.

17I: Irakasle-ikertzaile eta AZP gaituak, eskarmentudunak.

18I: Pentsamendu askatasuna eta espiritu kritikoa ezaugarritzat dituen giroa.

Ikasleentzako arreta

19I: Mugikortasun programen eskaintza zabala, onarpen handia eta gogobetetze indize altuak dituenak. Akordioak kalitatezko ikastegi askorekin.

20I: Nazioartekotze handia.

21I: Irakats eskaintza hirueleduna, zabala eta askotarikoa.

22I: Ikasleek sustatu eta Zuzendaritzak babestutako jarduerak.

Komunikazioa

23I: Ikastegiaren presentzia handia sare sozialetan.

24I: Lankidetzaz hitzarmenak administrazioarekin, udalekin, etab.

25I: Ate Irekiak eta kultura jarduerak.

Irudia eta gizartearekiko interakzioa

26I: Harreman ona eta hitzarmen kopuru handia enpresekin eta erakundeekin.

27I: Kultura jarduera ugari (erakusketak, hitzaldiak, ekitaldiak, bidaiak, lehiaketak, bienala, Open House...).

28I: Egresatuen mailaren aintzatespen handia.

Ahuleziak

Tituluen garapena

1A: Profil bakarra.

2A: Hezkuntza berrikuntza gutxi. Metodologiaren arteko desadostasunak.

3A: Koordinazio horizontal eta bertikaleko arazoak. Lan horren aitorpenik eza.

4A: Gradu bakarra izatea. Aniztasunik eza.

5A: Ikasketa plan zaharra.

Kudeaketa administratiboa

6A: Izapide gehiegi eta zailak (eskola). Barneko prozesu administratiboaren gehiegizko burokratizazioa.

7A: Kudeaketari begirako interes falta irakasleen artean. Irakasle-ikertzaileen inplikazio txikia kudeaketan.

Azpiegiturak eta baliabideak

8A: Liburutegirik ez izatea Ikastegian bertan (eskuragarritasuna erraztuko luke).

9A: Diruz lagundutako ikerketa proiektu gutxi.

10I: Altzari ez-higikorrek. Metodologia aktiboak eta taldeko jarduerak egiteko espazio eta azpiegitura gutxi.

11A: Eraikin zurruna eta opakua. Espazioen banaketa "fossilizatua".

12A: Gizon eta emakumeentzako komun bereziak. Guztiontzako komunen gabezia.

Irakasle-ikertzaileen eta AZPko langileen kudeaketa

13A: Zuzendaritza Taldeak zereginak eskuordetu eta beste alderdi batzuetan hobetu ahal izateko giza baliabideen gabezia.

14A: Unibertsitate ibilbide urriko II taldea (doktoreak, egonkorak, atxikiak/titularrak, katedratikoak, seiurtekoak...).

15A: AZPko langile gutxi.

16A: Irakasleen arteko koordinazio falta.

17A: Irakasle-ikertzaile ez-iraunkor asko eta lanaldi partzialean.

Ikasleentzako arreta

18A: Motibaziorik eza Eskolan antolatutako kultura jardueretan parte hartzeko.

19A: Ez dira ezagutzen irakasle-ikertzaileen, AZPko langileen eta ikasleen funtsezko interesak.

Komunikazioa

20A: Komunikazio Estrategia ez-profesionalizatua, posta elektronikoaren inguruan antolatua; hortaz, ez da erakargarria.

21A: Gure jarduera guztia ezagutzera emateko zailtasuna (webgune desegokia).

22A: Ez dago dibulgazio zientifikoko jarduerarik.

23A: Egiten dena komunikatzea.

Irudia eta gizartearekiko interakzioa

24A: Kanpo harremanerako estrategiarik eza.

25A: Garatutako jardueren kanpo komunikazio urria, asko egiten diren arren.

Mehatxuak

Tituluen garapena

1M: Zailtasunak titulu berriak proposatzeko. Malgutasun txikia formatuetan.

2M: Beste eskola batzuetatik desberdintzeko beharra.

Kudeaketa administratiboa

3M: Gehiegizko burokrasia kudeaketan. Gero eta prozesu administratibo gehiago, eta gero eta konplikatuagoak. Izapide gehiegi eta konplikatuak (UPV/EHU).

Azpiegiturak eta baliabideak

4M: Baliabide propiorik eta erabakitzeko ahalmenik eza, Ikastegiko instalazioak premia berrien arabera eguneratzeko (ikasgeletan eta tailerretan antolatzea, argiztapena...).

5M: Aurrekontuaren mugatzea (krisi ekonomikoaren ondorioz).

Irakasle-ikertzaileen eta AZPko langileen kudeaketa

6M: Lanean egonkortasuna lortzeko zailtasunak.

7M: Eskakizunak hainbat alderditan (irakaskuntza, kudeaketa, ikerketa, koordinazioa...).

8M: Ikasturte hasieran hasiko diren langile berriak kontratatzeko geldotasuna eta programaziorik eza.

9M: Langile berriak kontratatzeko baliabide oso mugatuak. Kontratu berriak egiteko ezintasuna.

Ikasleentzako arreta

10M: Matrikulazioan erantzun zuzenik ez ematea ikasleak erakartzeko jardunaldietan interesa agertzen duten ikasleei.

Komunikazioa

11M: Komunikazio plan eraginkorrik eza UPV/EHU.

12M: Baliabide gutxi Unibertsitatearen aldetik.

Irudia eta gizartearekiko interakzioa

13M: Estrategia zehazturik eza.

14M: Gizartearen "benetako beharretatik" aldendutako unibertsitate ingurunea.

15M: Zenbait enpresak giza kapital merke gisa ikusten gaituzte.

16M: Eraikuntzaren sektorea egoera txarrean dago lan aukerei dagokienez.

Aukerak

Tituluen garapena

1AU: Sektorea krisitik suspertzen ari da. Jarduera profesionalaren gorakada posiblea.

2AU: Teknika eta sormena uztartzen dituen formakuntza humanistaren erakargarritasuna.

3AU: Gizartearen eskaera berriak (hibridoak, mistoak..).

4AU: Kanpoan jardun profesionala gauzatzen duten irakasleen maila ertaina.

Kudeaketa administratiboa

5AU: UPV/EHUren tamaina handia, zerbitzuak eta bitartekoak.

Azpiegiturak eta baliabideak

6AU: Estamentu publiko eta pribatuen finantzaketa eta hitzarmenak.

7AU: Nazioarteko harreman sare zabala.

Irakasle-ikertzaileen eta AZPko langileen kudeaketa

8AU: Ikastegiko eskaintza dibertsifikatuko duten ikertaldeak finkatzea.

9AU: Sektoreko profesionalekiko harremana.

Ikasleentzako arreta

10AU: Gure ikasleek egiten duten lanari buruzko iritzi ona. GRAL sariak...

11AU: Nazioarteko harremanak, bienalak, titulu bikoitzak...

Komunikazioa

12AU: Eskuragarritasun handiagoa bitarteko eta sare berrietan.

13AU: Arkitektura Institutua.

Irudia eta gizartearekiko interakzioa

14AU: Hitzarmenak administrazioarekin.

15AU: Nazioarteko harremanak.

16AU: Masterrei edo gradu bikoitzei begira Europako Ikastegiekin senidetzeko aukerak.

17AU: Euskadiko Arkitektura Institutua.

18AU: Krisiaren ondorioz, arkitekto belaunaldi bat beste arlo batzuetan aplikatzen ari da bere ezagutzak, eta, etorkizunean, arlo horiek lan nitxo berriak izango dira gradudunentzat.

Ikuspegia

Plan Estrategikoak barne hartzen duen aldia amaitzean zer jomugatarara iritsi nahi den, horixe definitzen du ikuspegiak. Erronkak planteatu behar ditu, baina, aldi berean, neurgarria eta lorgarria izan behar du.

Eskolak lortu nahi dituen emaitzei erantzuten die, baita ikasleen artean, komunitate zientifikoa, langileen artean, gizartean eta unibertsitateko kideen artean izan nahi duen irudiari ere.

Ikastegirako zehaztutako misioa eta AMIA analisisian ateratako ondorioak kontuan hartuta, Zuzendaritza Taldeak lehentasunezko zazpi lerro definitu zituen ikuspegiari dagokionez.

UPV/EHUko Arkitektura Goi Eskola Teknikoak helburu hauek erdietsi nahi ditu 2021-2025 aldi estrateragikoan:

- Ikasleen aitorpena jasotzea kalitatezko irakaskuntza eskaintzen duen ikastegi bikain gisa, irakats esperientzia gogobetegarria eskaintzea, ikaskuntza etengabea sustatzea eta gizartearen beharretara moldatutako formakuntza integrala ematea.
- Langileek beren lan ibilbidea garatzeko ikastegi ontzat hartzea, eta haien inplikazio eta konpromiso ahalik eta handiena lortzea, pertsonalki eta profesionalki aurrera egin dezaten.
- Unibertsitateko kideek kudeaketa aurreratuko erreferentziazat hartzea, baita beren ezagutza arloekin erlazionatutako gaietako erreferentziazat ere.
- Enplegatzaileek bertako irakaskuntzaren kalitatea eta profesionalen prestakuntza aintzatestea, eta ikastegia ikerketa arloko erreferentziazko zentrotzat hartzea.
- Ikastegiaren konpromiso soziala aintzatetsia izatea.

Estrategia

Ikuspegi lerroak erdiesteko erakundeak abian jarriko dituen neurrien multzoa, horixe da estrategia. Ikuspegia definitzean zehaztutako helburuak egia bihurtzeko Ikastegiaren baliabideak, prozesuak eta pertsonak nola mobilizatuko diren zehaztean datza.

Ikuspegiak ZER lortu nahi den adierazten du, eta estrategiak, berriz, NOLA konbinatu behar diren baliabideak ikuspegi hori egia bihurtzeko.

Ikuspegi lerroetan lan egiteko, AGETeko Zuzendaritza Taldeak zenbait helburu estrategiko definitu ditu, zazpi ardatz estrategiko hauetan multzokatuak:

1. Tituluak
2. Ikasleak
3. Giza baliabideak
4. Ikerketa
5. Baliabide materialak
6. Komunikazioa
7. Gizartea

Bestalde, Plana hedatzeko, helburu estrategikoak lortzeko beharrezkotzat jotzen diren ekintzak zehaztu dira.

Hauetako helburuetako bakoitzaren baitan gauzatu beharreko ekintzak:

Tituluak

Ikastegiak badaki lan merkatua aldatzen ari dela, bai ingurune hurbilekoenean, bai munduan. Hori dela eta, funtsezkoa iruditzen zaio profesionalak behar dituzten enpresa zein erakundeen egungo nahiz etorkizuneko eskaeretara moldatzea ikasketa plana.

1.1. HE. Eragileekin elkartzeko esparruak ezartzea, titulua hobetzeko

Ekintzak	Arduradunak
1.1.a. EE. Kanpo jarduna gauzatzen duten irakasleekin bilerak egitea, indarrean dauden tituluak eta proposatzen diren titulu berriak hobetzeko ekarpenak sartzeko.	Zuzendaritza Taldea
1.1.b. EE. Ikasle egresatuekin bilerak egitea, indarrean dauden tituluak eta proposatzen diren titulu berriak hobetzeko ekarpenak sartzeko.	Zuzendaritza Taldea
1.1.c. EE. Gure inguruneko eragile sozialekin bilerak antolatzea, indarrean dauden tituluen eta proposatzen diren titulu berrien izaera definitzeko.	Zuzendaritza Taldea
1.1.d. EE. Urtero biltzea eraikuntzaren sektoreko eragile eta klusterrekin.	Zuzendaritza Taldea
1.1.e. EE. Lankidetzaren hitzarmen bat sinatzea Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialarekin (COAVN).	Zuzendaria

1.2. HE. Titulua hobetuko duen eduki berritzailea sartzea

Ekintzak	Arduradunak
1.2.a. EE. Irakats eskaintza eguneratzea eta egungo jarduera profesionalarekin lotura handiagoa bilatzea.	Gradu eta Graduondoko Zuzendariordeztza
1.2.b. EE. Jardun profesionalaren eta irakaskuntza nahiz ikerketako jardunaren arteko interrelazioa indartzea.	Zuzendaritza Taldea
1.2.c. EE. Ikertaldean eta tituluen arteko sinergiak sustatzea GRAL, MAL eta tesien bitartez.	II
1.2.d. EE. Curriculumeko eta borondatezko praktika gehiago jartzea graduondoko guztietan.	Euskara, Kultura eta Ikasleen Harremanetarako Zuzendariordeztza
1.2.e. EE. BIM metodologia sartzea Arkitekturaren Oinarrietako Gradu formakuntzan.	Gradu eta Graduondoko Zuzendariordeztza

1.3. HE. Prestakuntza eskaintza zabaltzea

Ekintzak	Arduradunak
1.3.a. EE. Arkitekturen Oinarrietako Graduaren ikasketa plana berraztertzea.	Gradu eta Graduondoko Zuzendariordeztza
1.3.b. EE. Ikastegiak eskaintzen dituen curriculumeko eta borondatezko praktikak hobetzea.	Euskara, Kultura eta Ikasleen Harremanetarako Zuzendariordeztza
1.3.c. EE. Merkataritzako espazioaren (retail) diseinuari buruzko graduondoko bat diseinatu eta eskaintzea.	Zuzendaritza Taldea
1.3.d. EE. Arkitekturako artxiboei buruzko ikastaro osagarri bat diseinatu eta eskaintzea.	Zuzendaritza Taldea
1.3.e. EE. Lurraldearen arkitektura eta ustiapenari buruzko graduondoko bat diseinatu eta eskaintzea NUPekin.	Zuzendaritza Taldea
1.3.f. EE. Titulazio bikoitz bat garatzea Latinoamerikako unibertsitate batekin.	Zuzendaritza Taldea

Ikasleak

Ikasleen unibertsitateko esperientzia gogobetegarria izan dadin, beharrezkotzat jotzen da irakats jarduera arautuak ikasleen giza formakuntza nahiz formakuntza akademikoa aberastuko duten beste jarduera osagarri batzuekin osatzea. Garrantzitsua da ikasleak gustura sentitzea Eskolan; ekimen kulturalak, sozialak zein aisialdikoak abian jartzeko beharrezko babesa jasotzea; Ikastegiko erabaki organoetan parte hartzea, eta Eskolaren garapenean jarrera aktiboa hartzea.

2.1. HE. Ikasleekiko komunikazioa hobetzea

Ekintzak	Arduradunak
2.1.a. EE. Ikastegiko ikasleek egiten duten lana zabaltzen jarraitzea.	Euskara, Kultura eta Ikasleen Harremanetarako Zuzendariordeztza

2.1.b. EE. Ikastegiaren webgunearekin lotutako blog bat sortzea, mugikortasun programetako ikasleei informazioa eskaintzeko.	Euskara, Kultura eta Ikasleen Harremanetarako Zuzendariorde
2.1.c. EE. Jardunaldi espezifiko bat egitea, nazioarteko mugikortasun programetako ikasleei graduondokoak eskaintzeko.	Nazioarteko Harreman, Mugikortasun eta Eleaniztasuneko Zuzendariorde

Giza baliabideak

Irakasle-ikertzaileak, AZPko langileak eta ikasleak funtsezko piezak dira ezarritako ikuspegia egia bihur dadin. Hortaz, ezinbestekotzat jotzen da horien gogobetetze maila eta formakuntza hobetzea eta Ikastegiko bizitzan parte har dezaten bultzatzea.

3.1. HE. Kudeaketan laguntzeko langileak kontratatze bide osagarriak sustatzea

Ekintzak	Arduradunak
3.1.a. EE. Hedabide berrietan eta sare sozialetan espezializatutako teknikari bat eskatzea Euskal Herriko Unibertsitateari (UPV/EHU).	Zuzendaria
3.1.b. EE. AZPko langileak kontratatze hitzarmena berritzea Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailarekin.	Zuzendaria
3.1.c. EE. Zuzendaritza Taldeari laguntzeko ikastegian AZPko langile gehiago edukitzeko finantzaketa lortzea.	Zuzendaria

3.2. HE. Kudeaketako langileen baldintzak eta ezaugarriak hobetzea

Ekintzak	Arduradunak
3.2.a. EE. Laborategiak, berezko tituluak eta Arkitektura Saila kudeatzeko AZP egonkorra eskatzea Euskal Herriko Unibertsitateari (UPV/EHU).	Zuzendaria
3.2.b. EE. Ikastegiko AZPko langileen hizkuntza formakuntza sustatzea.	Zuzendaritza Taldea
3.2.c. EE. Ingelesa dakiten AZPko langileak eskatzea Euskal Herriko Unibertsitateari (UPV/EHU). Jada kontratatuta daudenak, edo kontratazio berriak.	Zuzendaria

3.3. HE. II berrien ibilbide profesionala bultzatzea

Ekintzak	Arduradunak
3.3.a. EE. Irakasle-ikertzaileek tesia egin dezaten eta akreditazio akademikoa nahiz hizkuntza akreditazioa lor ditzaten sustatu eta erraztea.	Zuzendaritza Taldea
3.3.b. EE. Irakasle-ikertzaileei beren lanpostuko koordinazio eta kudeaketarekin lotutako prestakuntza ematea.	Kalitate eta Ikasketa Berrikuntzarako Zuzendariorde

Ikerketa

Ikerketa Eskolaren lehentasunezko ardatz bat da. Ikertaldeen arteko harremanak hobetzeko beharra antzeman da, baita ikerketa jarduerak hedatzeko beharra ere.

4. HE. Ikastegian ikertzeko giroa hobetzea

Ekintzak	Arduradunak
4.1.a. EE. Laneko esperientzia ikerketako merezimendu gisa aitor dadin proposatzea Espainiako Arkitektura Eskoletako Zuzendarien Biltzarrean (CDEAE).	Zuzendaria
4.1.b. EE. Ikastegiko ikerketarako espazioa erabiltzeko protokoloa prestatzea.	Zuzendaria

4.2. HE. Irakasle-ikertzaileen ikerketa lana sustatzea

Ekintzak	Arduradunak
4.2.a. EE. Irakasle-ikertzaileen interesekin bat datozen ikerketa lerroak bultzatzea.	Zuzendaritza Taldea
4.2.b. EE. Arkitektura Sailarekin bildu eta egutegi bat sortzea, ikertaldeek finantzaketa lortzeko lehiazko deialdietan parte har dezaten sustatzeko.	Zuzendaritza Taldea

Baliabide materialak

Irakaskuntzaren, ikerketaren eta bestelako jardueren garapena hobetzeko, behar bezala kudeatu behar dira baliabide materialak, eta finantzaketa moduak aurkitu behar dira.

5.1. HE. Kanpoko eragileekiko lankidetzak bultzatzea, baliabideak lortzeko

Ekintzak	Arduradunak
5.1.a. EE. Administrazioarekiko hitzarmenak sustatzea.	Zuzendaria
5.1.b. EE. Ekarpeneko ekonomikoak lortzea, tokiko erakundeekiko lankidetzaren bitartez.	Zuzendaria

5.2. HE. UPV/EHUren finantzaketa hobetzea

Ekintzak	Arduradunak
5.2.a. EE. Ikastegiko ekipamendu beharrak aurkeztea Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) deialdietan.	Zuzendaria
5.2.b. EE. Ikastegiko azpiegitura aldi-aldi aztertzea, beharrak antzemateko.	Ikastegiko administraria

5.3. HE. Funtz propioetarako espazioak eta FabLab hobetzea

Ekintzak	Arduradunak
5.3.a. EE. FabLab-en ekipamendua eta kudeaketa mantendu eta hobetzea.	FabLab-en arduraduna
5.3.b. EE. Ikastegian funts propioentzako espazio bat prestatzea.	Zuzendaria

Komunikazioa

Komunikazio egokia beharrezkoa da Ikastegiko jarduerak garatzeko, baita egiten diren jardueren eragina ezagutzeko eta behar berriak hauteman ahal izateko ere. Horrez gain, ikasle berriak erakartzeko jarduna etengabe berritu eta eguneratu behar da. Unibertsitate aurreko ikasleengana hurbiltzeko, proposamen argia eta erakargarria eduki behar da, belaunaldi berrietara moldatutako hizkuntza modernoan adierazia.

6.1. HE. Komunikazio prozedurak eta bideak optimizatzea

Ekintzak	Arduradunak
6.1.a. EE. Ikastegiko Barne zein Kanpo Komunikazioko Plana prestatzea.	Euskara, Kultura eta Ikasleen Harremanetarako Zuzendariordetza

6.2. HE. Webgunearen eta sare sozialen erabilera indartzea

Ekintzak	Arduradunak
6.2.a. EE. Ikastegiaren webgunea berrikustea eta hobetzea.	Euskara, Kultura eta Ikasleen Harremanetarako Zuzendariorde
6.2.b. EE. Ikastegiaren webgunearen mantentze lanez arduratzen den zerbitzuarekiko komunikazioa indartzea.	Euskara, Kultura eta Ikasleen Harremanetarako Zuzendariorde
6.2.c. EE. Ikastegiko jarduerak gehiago zabaltzea sare sozialetan.	Euskara, Kultura eta Ikasleen Harremanetarako Zuzendariorde

6.3. HE. Prestakuntza eskaintzaren hedapena areagotzea

Ekintzak	Arduradunak
6.3.a. EE. Irakasle-ikertzaile gehiago inplikatzeko ikastegiaren sustapenean.	Zuzendaritza Taldea
6.3.b. EE. Ate irekien jarduerak egiten jarraitzea.	Euskara, Kultura eta Ikasleen Harremanetarako Zuzendariorde
6.3.c. EE. Gure graduondoko tituluak sektorean ezagutzera ematea, jende gehiagorengana iristeko eta ikasle gehiago edukitzeko.	Zuzendaritza Taldea

Gizartea

Bere historian zehar, Eskolak ezaugarritzat izan ditu arkitekto lanbidearekiko lotura hertsia eta erakunde guztiekin lankidetzan aritzeko nahia.

7.1. HE. Kanpo eragileekiko harremana sustatzea

Ekintzak	Arduradunak
7.1.a. EE. Ikastegiko jarduerak ezagutzera ematea kanpoko erakundeen artean.	Zuzendaria
7.1.b. EE. EAIri laguntzea bere jardueretan eta arkitekturaren sustapen publikoan.	Zuzendaritza Taldea
7.1.c. EE. EAIrako Atxikimendu Gutuna sinatzea.	Zuzendaria

7.2. HE. Gizarte proiektzioa indartzea

Ekintzak	Arduradunak
7.2.a. EE. Irakasleek hedabideetan parte har dezaten sustatzea, Ikastegiko jarduerak ezagutzera emateko eta kultura arkitektonikoa hedatzeko.	Zuzendaritza Taldea
7.2.b. EE. Sektoreko profesionalak gonbidatzea kultura nahiz irakaskuntza jardueretara.	Euskara, Kultura eta Ikasleen Harremanetarako Zuzendariorde
7.2.c. EE. Ikasleek egindako lanaren berri emateko lan egitea.	Euskara, Kultura eta Ikasleen Harremanetarako Zuzendariorde

7.2.d. EE. Ikastegiaren Alumni propioa sortzea, egresatuen jarduna argitaratzeko.	Euskara, Kultura eta Ikasleen Harremanetarako Zuzendariorde
7.2.e. EE. Modu aktiboan parte hartzea Arkitekturako Bienalean (Mugak).	Zuzendaritza Taldea eta Ikastegiko II
7.2.f. EE. Modu aktiboan parte hartzea BIA Biltzarrean.	Zuzendaritza Taldea eta Ikastegiko II

Balioak

Gogoeta estrategikoko prozesuaren hurrengo urratsa Ikastegiko balioak berraztertzea izan zen.

Erakunde orok ditu berdingabe egiten duten ezaugarri bereizgarri batzuk. Bere jokamoldea, jarduteko modua edo egoeren aurrean hartzen dituen erabakiak printzipio batzuek baldintzatzen dituzte, eta printzipio horiek erakundearen eta berau osatzen duten pertsonen oinarrian daude.

Ziklo estrategiko bakoitzean zenbait balio indartu behar dira, erakundeak nahi den norabidean aurrera egin dezan lortzeko.

Eskolako kide diren pertsonak onartu egin behar dituzte balio horiek, beraiek arduratuko baitira planifikatutako ekintzak ezartzeaz.

Helburu horrekin, eta proposatutako misioa, ikuspegia eta estrategia aintzat hartuta, AGETeko Zuzendaritza Taldeak Plan honetan aurrera egiteko beharrezkotzat jo zituen balioak aztertu eta eguneratu zituen.

- **Erantzukizuna, etika, zuzentasuna eta berdintasuna.** Betebehar profesionalak onartu eta betetzeko prestasuna, interes komuna helburutzat harturik, modu inklusiboan eta berdintasunean.
- **Malgutasuna eta aldaketetara moldatzeko gaitasuna.** Behar berriei erantzun ahal izateko rol berriak bete, errutinak aldatu edo prozedura berriak onartzeko prestasuna.
- **Iniziatiba, jakin-mina eta berritzeko gaitasuna.** Gauza berriak asmatu edo ezagutzeko prestasuna eta borondatea, baita errealitatea aldatu eta hobetze aldera horiek praktikan jarri eta erabiltzekoa ere.
- **Kooperazioa eta koordinazioa.** Helburu komun bat lortzeko beste pertsona edo talde batzuekin eraginkortasun nahiz efizientzia irizpideak aplikatuz lan egiteko prestasuna eta borondatea.
- **Ezagutzaren transmisioa.** Azterketen, ikerketen eta esperientziaren bidez lortutako ezagutzak gizarteari eskaintzeko prestasuna.
- **Erakunde kontzientzia eta kidetza sentimendua.** Izaera propioa duen talde baten parte sentitzea, horren interesak babestea eta proiektuak nahiz lorpenak partekatzea.

Aginte Taula Estrategikoa

Helburu estrategikoen eta ikuspegi lerroek agerian uzten dituzte erakundearen nahiak. Horiei lotutako adierazleei esker, hasieran zenbakiz adierazitako xedek planteatu daitezke, eta ondoren horien betetze maila ebaluatu daiteke.

Aginte Taula Estrategikoa antolatuta jasotzen ditu ikuspegi lerroak eta helburu estrategikoa, baita horiei lotutako adierazleak eta xedek ere.

Ikuspegi lerroetan zein helburu estrategikoetan erdietsi beharreko xedeak erantzuten die.

Ikuspegi lerroei buruzko aginte taula estrategikoari dagokionez, 2024-25ean erdietsi beharreko xedek zehaztu dira; izan ere, ikasturte hori amaitzean, lortutako emaitzak aztertu, eta hurrengo ikasturtekoak ezarriko dira.

Tituluak

1.1. HE. Eragileekin elkartzeko esparruak ezartzea, titulua hobetzeko

Ekintzak	Data
1.1.a. EE. Kanpo jarduna gauzatu duten irakasleekin bilerak egitea, indarrean dauden tituluak eta proposatu diren titulu berriak hobetzeko ekarpenak sartzeko.	2022 - IV / 2024 - III
1.1.b. EE. Ikasle egresatuekin bilerak egitea, indarrean dauden tituluak eta proposatu diren titulu berriak hobetzeko ekarpenak sartzeko.	2022 - IV / 2023 - III / 2024 - III
1.1.c. EE. Gure ingurunean eragile sozialekin bilerak antolatzea, indarrean dauden tituluen eta proposatu diren titulu berrien izaera definitzeko.	2022 - II / 2024 - II
1.1.d. EE. Urtero biltzea eraikuntzaren sektoreko eragile eta klusterrekin.	2022 - II / 2023 - II / 2024 - II / 2025 - II
1.1.e. EE. Lankidetzaren hitzarmen bat sinatzea Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialarekin (COAVN).	2021 - IV

1.2. HE. Titulua hobetuko duen eduki berritzailea sartzeko

Ekintzak	Data
1.2.a. EE. Irakats eskaintza eguneratzea eta egungo jardueraren profesionalarekin lotura handiagoa bilatzea.	2022 - II
1.2.b. EE. Jardun profesionalaren eta irakaskuntza nahiz ikerketako jardunaren arteko interrelazioa indartzea.	2021 - III - IV / 2022 - I - II - III - IV / 2023 - I - II - III - IV / 2024 - I - II - III - IV / 2025 - I - II
1.2.c. EE. Ikertaldearen eta tituluen arteko sinergiak sustatzea GRAL, MAL eta tesien bitartez.	2022 - IV
1.2.d. EE. Curriculumeko eta borondatezko praktika gehiago jartzea graduondoko guztietan.	2022 - III
1.2.e. EE. BIM metodologia sartzeko Arkitekturaren Oinarrietako Gradu formakuntzan.	2022 - III

1.3. HE. Prestakuntza eskaintza zabaltzea

Ekintzak	Data
1.3.a. EE. Arkitekturaren Oinarrietako Graduaren ikasketa plana berraztertzea.	2022 - III
1.3.b. EE. Ikastegiak eskaintzen dituen curriculumeko eta borondatezko praktikak hobetzea.	2021 - III / 2022 - III / 2023 - III / 2024 - III

1.3.c. EE. Merkataritzako espazioaren (retail) diseinuari buruzko graduondoko bat diseinatu eta eskaintzea.	2023 - III
1.3.d. EE. Arkitekturako artxiboei buruzko ikastaro osagarri bat diseinatu eta eskaintzea.	2022 - IV
1.3.e. EE. Lurraldearen arkitektura eta ustiapenari buruzko graduondoko bat diseinatu eta eskaintzea NUPekin.	2024 - III
1.3.f. EE. Titulazio bikoitz bat garatzea Latinoamerikako unibertsitate batekin.	2023 - III

Ikasleak

2.1. HE. Ikasleekiko komunikazioa hobetzea

Ekintzak	Data
2.1.a. EE. Ikastegiko ikasleek egiten duten lana zabaltzen jarraitzea.	2021 - III - IV / 2022 - I - II - III - IV / 2023 - I - II - IV / 2024 - I - II - III - IV / 2025 - I - II
2.1.b. EE. Ikastegiaren webgunearekin lotutako blog bat sortzea, mugikortasun programetako ikasleei informazioa eskaintzeko.	2024 - III
2.1.c. EE. Jardunaldi espezifiko bat egitea, nazioarteko mugikortasun programetako ikasleei graduondokoak eskaintzeko.	2021 - III / 2022 - I - III / 2023 - I - III / 2024 - I - III / 2025 - I

Giza baliabideak

3.1. HE. Kudeaketan laguntzeko langileak kontratatze bide osagarriak sustatzea

Ekintzak	Data
3.1.a. EE. Hedabide berrietan eta sare sozialetan espezializatutako teknikari bat eskatzea Euskal Herriko Unibertsitateari (UPV/EHU).	2021 - III / 2022 - III / 2023 - III / 2024 - III
3.1.b. EE. AZP kontratatze bide hitzarmena berritzea Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailarekin.	2022 - I
3.1.c. EE. Zuzendaritza Taldeari laguntzeko Ikastegian AZP gehiago edukitzeko finantzaketa lortzea.	2021 - IV / 2023 - I / 2024 - I / 2025 - I

3.2. HE. Kudeaketako langileen baldintzak eta ezaugarriak hobetzea

Ekintzak	Data
3.2.a. EE. Laborategiak, berezko tituluak eta Arkitektura Saila kudeatzeko AZP egonkorra eskatzea Euskal Herriko Unibertsitateari (UPV/EHU).	2022 - III / 2023 - III / 2024 - III
3.2.b. EE. Ikastegiko AZPko langileen hizkuntza formakuntza sustatzea.	2022 - II / 2025 - II
3.2.c. EE. Ingelesa dakiten AZPko langileak eskatzea Euskal Herriko Unibertsitateari (UPV/EHU). Jada kontratatuta daudenak, edo kontratazio berriak.	2021 - IV / 2023 - I / 2024 - I / 2025 - I

3.3. HE. II berrien ibilbide profesionala bultzatzea

Ekintzak	Data
3.3.a. EE. Irakasle-ikertzaileek tesia egin dezaten eta akreditazio akademikoa nahiz hizkuntza akreditazioa lor ditzaten sustatu eta erraztea.	2021 - IV / 2022 - IV / 2023 - IV / 2024 - IV

3.3.b. EE. Irakasle-ikertzaileei beren lanpostuko koordinazio eta kudeaketarekin lotutako prestakuntza ematea. 2022 - III / 2023 - III / 2024 - III

Ikerketa

4.1. HE. Ikastegian ikertzeko giroa hobetzea

Ekintzak	Data
4.1.a. EE. Laneko esperientzia ikerketako merezimendu gisa aitor dadin proposatzea Espainiako Arkitektura Eskoletako Zuzendarien Biltzarrean (CDEAE).	2022 - II
4.1.b. EE. Ikastegiko ikerketarako espazioa erabiltzeko protokoloa prestatzea.	2022 - I

4.2. HE. Irakasle eta ikertzaileen ikerketa lana sustatzea

Ekintzak	Data
4.2.a. EE. Irakasle-ikertzaileen interesekin bat datozen ikerketa lerroak bultzatzea.	2022 - I
4.2.b. EE. Arkitektura Sailarekin bildu eta egutegi bat sortzea, ikertaldeek finantzaketa lortzeko lehiazko deialdietan parte har dezaten sustatzeko.	2021 - III / 2022 - III / 2023 - III

Baliabide materialak

5.1. HE. Kanpoko eragileekiko lankidetzak bultzatzea, baliabideak lortzeko

Ekintzak	Data
5.1.a. EE. Administrazioarekiko hitzarmenak sustatzea.	2021 - III - IV / 2022 - I - II - III - IV / 2023 - I - II - IV / 2024 - I - II - III - IV / 2025 - I - II
5.1.b. EE. Ekarpeneko ekonomikoak lortzea, tokiko erakundeekiko lankidetzak bitartez.	2021 - III - IV / 2022 - I - II - III - IV / 2023 - I - II - IV / 2024 - I - II - III - IV / 2025 - I - II

5.2. HE. UPV/EHUren finantzaketa hobetzea

Ekintzak	Data
5.2.a. EE. Ikastegiko ekipamendu beharrak aurkeztea Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) deialdietan.	2022 - I / 2023 - I / 2024 - I / 2025 - I
5.2.b. EE. Ikastegiko azpiegitura aldian-aldian aztertzea, beharrak antzemateko.	2022 - II / 2023 - II / 2024 - II / 2025 - II

5.3. HE. Funtz propioentzako espazioak eta FabLab hobetzea

Ekintzak	Data
5.3.a. EE. FabLab-en ekipamendua eta kudeaketa mantendu eta hobetzea.	2022 - I / 2023 - I / 2024 - I / 2025 - I
5.3.b. EE. Ikastegian funts propioentzako espazio bat prestatzea.	2022 - I

Komunikazioa

6.1. HE. Prozedurak eta komunikazio bideak optimizatzea

Ekintzak	Data
6.1.a. EE. Ikastegiko Barne zein Kanpo Komunikazioko Plana prestatzea.	2022 - I

6.2. HE. Webgunearen eta sare sozialen erabilera indartzea

Ekintzak	Data
6.2.a. EE. Ikastegiaren webgunea berrikustea eta hobetzea.	2022 - II / 2023 - II / 2024 - II / 2025 - II
6.2.b. EE. Ikastegiaren webgunearen mantentze lanez arduratzen den zerbitzuarekiko komunikazioa indartzea.	2024 - II
6.2.c. EE. Ikastegiko jarduerak gehiago zabaltzea sare sozialetan.	2021 - III / 2022 - III / 2023 - III / 2024 - III

6.3. HE. Prestakuntza eskaintzaren hedapena areagotzea

Ekintzak	Data
6.3.a. EE. Irakasle-ikertzaile gehiago inplikatzeko ikastegiaren sustapenean.	2022 - I / 2023 - I / 2024 - I / 2025 - I
6.3.b. EE. Ate irekien jarduerak egiten jarraitzea.	2022 - I / 2023 - I / 2024 - I / 2025 - I
6.3.c. EE. Gure graduondoko tituluak sektorean ezagutzera ematea, jende gehiagorengana iristeko eta ikasle gehiago edukitzeko.	2022 - II / 2023 - II / 2024 - II / 2025 - II

Gizartea

7.1. HE. Kanpo eragileekiko harremana sustatzea

Ekintzak	Data
7.1.a. EE. Ikastegiko jarduerak ezagutzera ematea kanpoko erakundeen artean.	2021 - IV / 2021 - I - II IV / 2023 - I - II - IV / 2024 - I - II - IV / 2025 - I - II
7.1.b. EE. EAIRi laguntzea bere jardueretan eta arkitekturaren sustapen publikoan.	2021 - III - IV / 2022 - I - II - III - IV / 2023 - I - II - IV / 2024 - I - II - III - IV / 2025 - I - II
7.1.c. EE. EAIRako Atxikimen Gutuna sinatzea.	2021 - IV

7.2. HE. Gizarte proiektzioa indartzea

Ekintzak	Data
7.2.a. EE. Irakasleek hedabideetan parte har dezaten sustatzea, ikastegiko jarduerak ezagutzera emateko.	2021 - III - IV / 2022 - I - II - III - IV / 2023 - I - II - IV / 2024 - I - II - III - IV / 2025 - I - II
7.2.b. EE. Sektoreko profesionalak gonbidatzea kultura nahiz irakaskuntza jardueretara.	2021 - III - IV / 2022 - I - II - III - IV / 2023 - I - II - IV / 2024 - I - II - III - IV / 2025 - I - II
7.2.c. EE. Ikasleek egindako lanaren berri emateko lan egitea.	2021 - III / 2022 - II - III / 2023 - II - III / 2024 - II - III / 2025 - II
7.2.d. EE. Ikastegiaren Alumni propioa sortzea, egresatuen jarduna argitaratzeko.	2022 - I / 2023 - I / 2024 - I / 2025 - I
7.2.e. EE. Modu aktiboan parte hartzea Arkitekturako Bienalean (Mugak).	2021 - IV / 2023 - IV
7.2.f. EE. Modu aktiboan parte hartzea BIA Biltzarrean.	2022 - IV / 2024 - IV

Donostian, 2021eko otsailaren 1ean.